

Eraikinen kalitatea hobetzea da Erailur batzordearen helburu nagusia

Hasteko, etxeen prezioen ganeko azterketea egingo dabe udarako, herritarrei banatzeko

Izaskun Bastarretxea

Erailur aurkeztu eben atzo Bilibon, eraikuntzearen ganeko batzordea edo alkattea. Bizkaiko etxe-eraikitzaileek eta sustatzaileek, arkitektoek eta aparejadoreek sortu dabe, eta hiru erakundeotako ordezkariak esan eben alkattearen helburu nagusia eraikinen kalitatea zaintzea eta hobetzea jala.

Carlos Lazaro Arkitektoen Bazkuneko Bizkaiko ordezkaria, Oscar Landeta Bizkaiko Eraikitzaileen eta Sustatzaileen alkatetea (BIEBA) ordezkaria, eta Iñaki Perez Bizkaiko Aparejadore eta Arkitekto Teknikoaren Bazkuneko ordezkaria egon ziran atzo egindako aurkezpenean. «Urte t' erdi daroagu alkatete hau sortzeko beharrea, eta gaur —atzo— egun garrantzitsua da guretzat, pozgarria», esan eban Lazarok. «Bizkaitik haruntzago egiteko asmoa be badago, baina momentuz Bizkaian osotu dogu», azaldu eban. «Etxe-eraikitzaileak, sustatzaileak, arkitektoak eta aparejadoreak beti gagoz hartu-

emonetan, eraikinak alkarregaz egiten doguz eta; baina gure artean alkatete bat sortu dogun lehenengo aldia da hemen, eta horrek erretzu egingo dau gure arteko hartu-emona, komunikazinoa eta eritxiak eta analisiak alkarri azaltzeko modua, holan eraikinen kalitatea hobeto zaintzeko», esan eban Lazarok.

Baina herritarrei begira sortutako alkatetea be badala nabarmendu eben. Eta horretarako, eraikinen ganeko azterketak, protokoloak, jardunaldiak, mahai-inguruak eta holakoak gertauko ditue.

Hasteko, adibidez, Bizkaiko etxebizitzaren prezioaren ganeko azterketea egingo dabe, esku-liburu baten jaso eta gero bizkaitarren artean banatzeko. «Azterketeak erakutsiko dau zergatik diran garestiak etxeak: materialak, lekua...», azaldu eban Landetak. Lazaroren arabera, udarako edo amaituko dabe azterketa hiri, «jenteak hondartzan edo irakurri dagian».

Eraikinen ganeko liburua be egingo dabe. «Ganera, hemen-



Iñaki Perez, Carlos Lazaro eta Oscar Landeta, atzo, Erailur alkattearen aurkezpenean.

DATA

Etxeen azterketa teknikoak egiten hasi beharko da laster

Autoei azterketa teknikoak egin behar izaten jaken antzera, laster Euskal Autonomia Erkidegoan etxeei egitea be derrigorra izango da esan eben atzo Erailur alkatete ordezkariak. Azterketa horren ganeko oinarriak lantzen dabil Erailurren, eta gero, «urte amaierarako edo», horri lotutako lege-araudia onartuko dabe EAeko legebiltzarrean. «Gure eritzi, ona da etxeei azterketa teknikoak egitea, guztiontzat; izan be, gauza guztiak ez dira betiko izaten, eta etxeetan be zaindu egin behar dira gauzak: etxearen aurpegia, edo leihoak...», azaldu eban Carlos Lazarok, Arkitektoen Bazkuneko Bizkaiko ordezkariak.

dik gitxira etxea erosteagaz batera derrigor emon behar izango dabe etxearen ganeko liburua, autoa erosterakoan emoten daben moduan; etxea hobeto ezagutzeko», esan eban Lazarok. Etxebizitzaren mantenerako oinarriko esku-liburua

egiteko asmoa be badaukie, eta holako beste hainbat gauza. Beti be, kalidadeari begira. Horretan zeregina beti dagoela onartu arren, orokorrean begiratuta, Bizkaian eraikinen kalitatea nahiko ona dala azpimarratu eben.

Eraikinak egiterakoan, segurtasunagaz be arduratuta dagozala nabarmendu eban Oscar Landetak. «Horretarako, danok kontzientzia behar dogu, esku-beherra egiten daben beharrenek be bai».

Erailur batzordeak zuzendaritza, lehendakaria eta Idazkari Nagusia daukaz, eta hiru erakundeetako ordezkariak osotzen dabe. Lehendakaria Carlos Lazaro da. Idazkari Nagusia Maria Victoria Morras, Arkitektoen Bazkuneko Bizkaiko ordezkaria da bera be. Diruzaina Jose Luis Armada da, Aparejadoreen Bazkuneko presidentea. Eta bokalak hiru dira: Iñaki Perez —Aparejadoreen Bazkuneko—, Iñaki Barreneetxea —BIEBAkoa— eta Oscar Landeta —BIEBAkoa—.